



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilak 5

Vitoria-Gasteiz, 5 de abril de 2022

Lehendakaritza

GIPUZKOAKO UDAL BATZUEK LEHEN URRATSAK EMAN DITUZTE BEREN HILERRIETAN ERRITU MUSULMANAREN ARABERA EHORZKETAK AHALBIDETZEKO

ADOS Batzordearekin eta Euskadiko komunitate islamikoekin urtebeteko lan-prozesuaren ondoren, Gipuzkoako udal batzuk lehen urratsak ematen ari dira beren hilerrietan erritu musulmaneko ehorzketak ahalbidetuko dituzten lurzatiak gaitu ahal izateko. Zehazki, Donostia, Tolosa, Ordizia eta Elgoibarreko udalak dira.

Lursail horiek bete beharreko baldintza nagusia da ehorzketa erritu musulmanari jarraiki egin ahal izateko, hilobiak ekialdera bideratuta egotea. Oinarri horren gainean, Islamaren berezko otoitzak eta ehorzketa-errituak garatzen dira, hala nola gorputza alde batera jartzea edo hilkutxan lurra sartzea.

Donostian, Tolosan, Ordizian eta Elgoibarren, prozesua aurreratua dago, eta lursail horiek urtea amaitu baino lehen prestatuta egotea aurreikusten da. Beste udal batzuetan hilerriek eskaintzen dituzten aukera teknikoak aztertzen ari dira. Horrela, udal horiek gero eta pluralagoa den errealitate sozioerlijiosoari eta kulturalari erantzuten diote, baita oinarrizko askatasunen eta eskubideen errespetuari ere. Erlijio-askatasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko itun eta hitzarmen guztietan unibertsalki aitortutako giza eskubideetako bat da.

Askatasun horrek barne hartzen du edozein erlijio askatasunez, banaka edo taldeka, praktikatzeko eskubidea, baita erlijiorik edo sinesmenik ez praktikatzeko eskubidea ere. Erlijio-askatasuna oinarrizko eskubidetzat jotzen du Konstituzioaren 16. artikulua.

Bestalde, Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko Lankidetzak Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 26/1992 Legeak komunitate islamikoei aitortzen die udal-hilerrietan erritu musulmaneko lurzatiak edukitzeko eskubidea, betiere toki-araubideari eta osasunari buruzko legerian xedatutakoari jarraiki.

Aurrekariak

Pandemiaren hasieran agerian geratu zen euskal hilerrietan ez zegoela aukerarik erritu musulmanean ehorztekiko. 2020ko martxoan, Euskadin ehorzketa horietarako esparrurik edo partzelarik ez egoteaz gain, gorpuak ezin izan ziren jatorrizko lekuetara aberriratu, hala nola Marokora, Pakistanera edo Senegalera, mugak itxi zirelako eta lursail mota horiek dituzten aldameneko Autonomia Erkidegoetako hilerri batzuk ere itxi zirelako. Horrek guztiak kezka handiko egoera sortu zuen Euskadiko komunitate islamikoetan.

Arazo hori Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Aholku Batzordean aurkeztu zen. Batzorde hori 2018ko apirilean sortu zen, eta partaidetza-, lankidetzeta- eta aholkularitza-organoa da Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakundeen politika publikoetarako, bai Euskadiko komunitate islamikoekin dituzten harremanetan, bai bizikidetzaren alde egiteko.

Batzordeak berehala heldu zion gai horri, eta harremanetan jarri zen hainbat udalekin, premiazko konponbidea ahalbidetuko zuen alternatiba bat aurkitzeko. Arrigorriagako Udalak esku-hartze hori ahalbidetzen zuen espazio bat eskaini zuen. Hain zuzen ere, udalerrri honetako Parke-hilerrian 16 hilobitarako lekua zuen lursail bat bideratu zen, halako ehorzketak egin ahal izateko.

Espazioa azkar egokitu zen, 2020ko irailean benetan erabilgarri egotea ahalbidetuz. Harrezkero, 10 nitxo okupatu dira. Arrigorriagako Udalak egin zuen ahaleginarekin elkarlanean aritu zen Eusko Jaurlaritza, horretarako diru-laguntza bat emanez. Aldi berean, 2020. urtearen amaieran, Gasteizko Udalaren 2021erako aurrekontu-proiektuak bi partida ekonomiko sartu zituen Gasteizko El Salvador hilerrian ehorzketa musulmanak egiteko lursail bat bideratzeko.

2021eko maiatzean, ADOS Batzordeak dei egin zien Gipuzkoako hainbat udali, lurralde horretan erritu musulmanaren arabera ehorzketak egiteko hilerrietan lursail erabilgarriak izateko beharrari irtenbide bat aurkitzen saiatzeko. Lurraldeko zenbait udal prest agertu ziren beren udalerrietako hilerrietan alternatibak bilatzeko. Lurralde mailako lau bilera egin ondoren, bilerak egin dira udalerrri bakoitzean.

Udalerrri bakoitzean dauden aukera zehatzak ikuspuntu teknikitik eta materialetik aztertzea izan da helburua. Epe ertainean, eskualde bakoitzean hilerri bat egotea komeni da, erritu musulmanaren arabera ehorzketa egiteko lekua duena.

Segurtasuna

SEGURTASUN SAILAREN 2022RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DA

- **Politika publikoak planifikatzeko dokumentuan elkarreek, erakundeek edo organismoek Segurtasun Siletik jasoko dituzten dirulaguntza guztiak daude jasota**
- **Horien artean, nabarmentzekoak dira jokoarekiko adikzioei aurrea hartzeko eta herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman parte hartzea sustatzeko programak, edota gorroto-delituei aurre egiteko UPV/EHUREKIN batera egiten den lana**

Gobernu Kontseiluak Segurtasun Sailaren Dirulaguntzen 2022ko Plan Estrategikoa onartu du. Testua webgunean argitaratuko da jendeak kontsultatu ahal izateko, eta argi eta garbi azalduko dira aurten elkarreek, erakundeek edo organismoek jasoko dituzten dirulaguntza guztiak.

Planak **zazpi ardatz estrategiko** ditu:

1. **Alderdi politikoan finantzaketa publikoa**, Eusko Legebiltzarrerako egindako azken hauteskundeetan herritarrek emandako ordezkartzaren arabera:
 - ✓ 4,5 milioi euro EAJ-PNV, EH-BILDU, ELKARREKIN-PODEMOS-IU, PSE-PSOE, PP+Cs eta VOX alderdientzat.
2. **Herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte hartzea sustatzea eta bultzatzea**. Eusko Jaurlaritzaren helburua da euskal sare horretan sartzea larrialdi-egoeretan pertsonei laguntza ematen edo ondasunak hornitzen lankidetzan aritzen diren erakunde guztiak:
 - ✓ Gurutze Gorria, 471.600 €
 - ✓ DYA, 155.000 €
 - ✓ Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, 36.000 €
 - ✓ Euskal Espeleologoek Elkargoa, 15.000 €
 - ✓ Mendiko Euskal Federazioa, 25.000 €
 - ✓ EuskalEguraldia, 3.000 €
3. **Informazio ozeano-meteorologikoa lortzeko ikerketa**, itsasertzeko itsas ingurunekeo plataformen bidez. Laguntza-lerro honi esker, Eusko Jaurlaritzak portuetan kokatuta dauden plataformetako, ur sakonetako buietako, kostaldeko radar-sareko eta kostaldeko bideometria-sistemako informazioa biltzen du. Horren bidez, itsasoaren eta itsasertzaren portaerari buruzko aurreikuspenak, arriskuei buruzko iragarpenak egin ditzake, etab.
 - ✓ AZTI Fundazioa, 195.000 €

4. **Mugikortasun segurua sustatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da ikasleak trafiko-istripuen prebentzioaren arloan sentsibilizatzeko kanpainak egitea ikastetxeetan bertan.
 - ✓ AESLEME, Mugikortasun segururako hezkuntzaren elkarte, 30.000 €

5. **Joko-adikzioen ondorio diren arriskuen prebentzioa.** Eusko Jaurlaritzak ludopatiari aurrea hartzeko, jokoarekin lotutako arriskuak murrizteko eta prebentzio-proiektuak lantzeko lanean ari diren erakundeen laguntza du.
 - ✓ Ludopatiari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak abian jartzeko irabazi-asmorik gabeko Euskadiko elkarte pribatuen proiektuei laguntzeko deialdia, 200.000 €
 - ✓ UPV/EHU, Jokoaren Euskal Behatokiaren ikerketa-programa finantzatzeko, 100.000 €

6. **Ertzaintzako langileek polizien eta suhiltzaileen jokoetan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da kirol-esperientziak partekatzea, poliziako eta larrialdietako kidegoen arteko laguntasuna sustatzea eta, batez ere, forma fisiko onari eustea Ertzaintza barruan.
 - ✓ Kirol-lehiaketetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak, 20.000 €

7. **Kriminologia ikerketa eta ikasketa sustatzea.** Dirulaguntza publikoen ardatz honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren helburua da Euskadiko kriminalitatea hobeto ezagutzea eta aurrea hartzea eta desagerraraztea. Gainera, arreta berezia eskainiko zaie gorroto-delituei, berdintasun, tolerantzia eta elkarbizitzarekiko begirunea hedatzeko eta ezartzeko.
 - ✓ UPV/EHU, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO katedra, 30.000 €.
 - ✓ UPV/EHU, Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI), 125.000 €.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

ADMINISTRAZIO OROKORREAN GARDENTASUNA SUSTATZEKO ETA EZARTZEKO URRATSAK EGITEN JARRAITZEN DU EUSKO JAURLARITZAK

- **2021eko balantze-txostenak informazio publikoa eskuratzeko mekanismoen eta publizitate aktiboko tresnen hobekuntza nabarmentzen du**
- **laz gora egin du informazio publikoko eskaeren kopuruak**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean eta haren sektore publikoan gardentasunaren ezarpena sendotzen ari da. Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak egindako 2021eko balantze-txostenak erakusten duenez, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta publizitate aktiboa urtetik urtera hobetzen ari dira. Areago, txostenaren datuak gardentasun eredua indartzen dute, pertsona orok herri-administrazioen esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko duen eskubidea bermatzen baitu. Hori erakusten dute, besteak beste, Gardena gardentasun atariak, Legegunea webguneak, Open Data Euskadik (datu irekiak eta berrerabilgarriak eskaintzen ditu) edo kontratatzailearen profilak.

Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailburuak gardentasun mailak monitorizatzeko asmoz egin ohi den azterlanaren berri eman dio gaur Gobernu Kontseiluari. Azterlan horretan, Eusko Jaurlaritzak gardentasunaren ikuspegitik herritarrekin dituen interakzio kanalen funtzionamendu egokia nabarmentzen da. Informazio eskaerak eta erreklamazioak bideratzeko gehien erabiltzen den bidea elektronikoa da (% 82), ondoren postala (% 15) eta aurrez aurrekoa (% 3).

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak gardentasunaren eta gobernu onaren arloko sentsibilizazioa sustatzea du xede, irisgarritasunean hobekuntzak aplikatuz informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko, eta eskainitako informazioa eguneratuz eta handituz. Txostenean ikus daitekeenez, gora egin du azken urteetan jasotako informazio publikoko eskaeren kopuruak, eta joera hori indartu egin da 2021ean, %65ean igo baita 2020. urtearekin alderatuta. Jaurlaritzako sail guztiek izan dute eragina igoera horretan, baina bereziki honako hauetan: Osasuna (% 35,5), Segurtasuna (% 15), Garapen Ekonomikoa, Jasangarritasuna eta Ingurumena (% 15) eta Hezkuntza (% 12,5). Publizitate aktiboaren ikuspegitik Gardena edo Legegunea bezalako atariak duten garrantzia nabarmentzen du txostenak. Atari horiek izapidetze prozeduran espedienteen edukiak argitaratzea ahalbidetzen dituzte eta Eusko Jaurlaritzaren baliabide juridikoak biltzen dituzte, betiere herritarrei modu ordenatuan eta sarbide argi eta errazekin emateko. Legegunearen kasuan, datuek erakusten dute erregistroek gora egin dutela: 2020ko 40.842tik iazko 43.566ra.

Open Data Euskadi da urtez urte zenbakiak hobetzen dituen publikitate aktiboko beste tresna nabarmen bat. Tresna honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren esku dauden datu publikoak azaltzen dira, beste edonork horietatik eratorritako zerbitzuak sor ditzaten. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren eta mendeko erakundeen 6.007 datu-multzo ditu eskueran, aurreko urtean 5.365 izan ziren bitartean. Horiei guztiei gehitu behar zaizkie beren katalogoan sartzen diren foru eta toki administrazioen 1.742 datu-multzoak. Joan den urtean, Euskadiko trafiko dentsitateari buruzko datuak ipini ziren eskura, baita sasoiko langileak hartzeko higiezinaren erregistroa, erakunde publikoek emandako laguntzak, euskal administrazio publikoen kontratuen erregistroa eta Covid-19aren pandemiaren bilakaerari buruzko datuak ere.

Bestalde, kontratuekin lotutako informazio guztia automatizatu egin da Ekonomia eta Ogasun Sailak kudeatzen duen Euskadiko kontratazio publikoko plataformaren datu-iturrian oinarrituta. Gainera, lanpostuen zerranda – informazio oso erabilia– bilatzaile baten bidez aurki daiteke automatikoki eta egunero eguneratuta.

Datu horiek guztiek agerian uzten dute Eusko Jaurlaritzak gardentasun adierazlearen argitalpenean aurrera egiteko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzeko apustua egin duela, gobernu on baterako funtsezko praktika den aldetik. 2022rako beste erronka batzuk dira Gardena atarira bisitak areagotzea, eguneratuta eta informazioa areagotuta edota Open Data sariak sustatzea, bere bi aldagaietan: datu irekiak berrerabiltzeko ideien lehiaketa eta datu irekiak erabiliz web eta mugikor zerbitzuak edo aplikazioak sortzeko aplikazioen lehiaketa.

Txosten hori Gardena gardentasun atarian argitaratuko da, Jaurlaritzak gardentasunarekin eta kontuak ematearekin duen konpromisoaren erakusgarri.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK SALBUESPENEZKO NEURRIAK HARTU DITU OBRA-KONTRATU PUBLIKOEN PREZIOAK BERRIKUSTEKO, LEHENGAIEN KOSTUAK IZANDAKO GORAKADA DELA ETA

Eusko Jaurlaritzak obra-kontratu publikoen prezioak berrikusteko salbuespenezko neurriak aplikatzea erabaki du gaur, asteartea, egindako bileran, lehengaien kostuetan izandako igoera handiaren aurrean. Prezioen gorakada horrek zailtasun handiak eragin ditu kontratu horiek egikaritzeko, eta kontratistak kontratu publiko orotan bere gain hartu beharreko arriskuak gainditzen ditu.

Prezioen ezohiko berrikuspena onartuko da obra-kontraturako erabilitako materialen kostuaren igoerak eragin zuzenekoa eta garrantzitsua izan duenean kontratuaren ekonomian, bere indarraldian eta amaitzen den arte. Berrikuspenaren zenbatekoa ezin izango da kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 20tik gorakoa izan.

Ildo horretatik, inpaktu hori dagoela ulertuko da materialen kostuaren igoera kontratuaren zenbateko ziurtatuaren % 5 baino handiagoa denean, urteko ekitaldi batetik beherakoa eta urteko bi ekitalditik gorakoa izango ez den aldi batean.

Gobernu Kontseiluaren gaurko akordioari esker, Espainiako Gobernuak obra-kontratu publikoetan prezioak berrikusteari buruz ezarritako araudia aplikatu ahal izango da EAEn, 3/2022 Errege Lege Dekretuaren babesean. Dekretu hori indarrean dago jadanik, eta autonomia-erkidego bakoitzari ahalmena ematen dio berori aukeran aplikatzeko.

Sektore publikoko obra-kontratuak aldizka berrikustea indarrean dagoen araudian jasota badago ere, orain planteatzen dena salbuespenezko neurri batzuk dira. Horien bidez, esaterako, prezioak berrikusi ahal izango dituzte baldintza-agirietan aukera hori jasota ez duten kontratuek. Era berean, aukera hori baliatu ahal izango dute, baldintza-agirietan prezioen berrikuspena jasota izan arren, kontratuaren zenbatekoaren % 20 egikaritu ez duten kontratuek, edo kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ez diren kontratuek.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2,2 MILIOI EUROAN HANDITU DU HIRU EUSKAL UNIBERTSITATEEKIN SINATUTAKO KONTRATU-PROGRAMEN 2022ko FINANTZIAZIOA

- Kopuru hau “*Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa*” eta “*Gazte ekintzailtza*” programak garatzera bideratuko da hiru euskal unibertsitateetan

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2022 urtean “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programarako UPV/EHUri, Deustuko Unibertsitateari eta Mondragon Unibertsitateari emandako finantzazioa 2.246.000 euroan handitzea.

2.246.000 euroko kopuru hau, *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da. Programa hauek “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programan dagoeneko jasorik dauden ekintzen osagarri gertatzen dira. Diru-kopuru hau, honela gelditzen da banaturik, unibertsitate eta programa bakoitzeko:

	<i>Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa</i>	<i>Gazte ekintzailtza</i>	Guztira
UPV/EHU	1.200.000 €	150.000 €	1.350.000 €
Deustuko Unib.	500.000 €	60.000 €	560.000 €
Mondragon Unib.	300.000 €	36.000 €	336.000 €

Gaur onartu den finantzazio handitzea, Kontratu-Programak sinatzean dagoeneko 2022 urterako hiru unibertsitate hauentzat onartu zen 11,6 milioi euroko kopuruari gehitzen zaio.

“*Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa*” programaren helburua da unibertsitate-ikasketetako azken kurtsoan dauden ikasleek edo eta unibertsitate titulu ofizial baten jabe direnek trebetasun handiagoa lortzea; izan ere, profil konkretu bati buruzko gaitasunei lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak lortuko dira, lan-esperientzia bat egiaztatzeko aukera honen bidez.

Programa honetan parte hartuko duten ikasleek hiru hilabeteko egonaldia egingo dute enpresa batean. Aurrez, unibertsitateak hitzarmena sinatua izan beharko du enpresa horrekin. Unibertsitatea ikasle horien jarraipena egiteaz arduratuko da. Programa hau gehienez hiru unibertsitateetako mila ikasleri zuzenduko zaie.

Bestalde, “*Gazte ekintzailtza*” programari dagokionez, kultura ekintzailea unibertsitateko ikasleen artean aktibatzea du helburu. Horretarako, laguntza bat

emango die eremu horretan sor daitezkeen enpresa-ekimenei eta enplegu berriak sor ditzaketen autonomo eta mikroenpresen ekimenei. Programa hau gehienez hiru unibertsitateetako 41 proiektuentzat izango da.

2019-2022 aldirako Kontratu-Programak

2019ko uztailean, eta 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren baitan, Hezkuntza Sailak hiru Kontratu-Programa sinatu zituen Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzarekin. Orotara 200 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa (200.086.186 €) jasotzen da lau urterako (2019-2022):

- “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programa
- “Bikaintasun-ikerketa” Kontratu-Programa
- “Prestakuntza eta Nazioartekotzea” Kontratu-Programa

Kontratu-Programak unibertsitateak finantzatzeko tresna bat dira. Unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeak baldintzatzen du finantzaketa hori. Unibertsitate-politikako tresnak dira, eta aparteko baliabide ekonomikoak helarazten dizkiete goi-mailako hezkuntza-zentroei. Hauek jasotzea, aldean artean adostutako helburu estrategikoak betetzearen baldintzapean dago.

Unibertsitateekin sinatutako “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programak, besteak beste, unibertsitateen eta enpresen eta beste erakunde batzuen arteko harremana sustatzeko jarduerak egitea aurreikusten du. Beraz, gorago azaldutako programa horiek dagoeneko Kontratu-Programetan aurreikusten zirenen osagarri dira.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK 5,6 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU OSASUN-ARLOKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZETARA

Gotzone Sagardui Osasuneko Sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzetarako 2022. urteko deialdia —5.650.000 eurokoa— onartu du gaur.

Handitu daitezkeen laguntza horien helburua da pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren jarduna hobetzen laguntzea, baita garapen sozioekonomikoa laguntzea ere, ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatuz, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Zehazki, lau laguntza-ildo bereizten dira:

- **Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea** I+G proiektuen bidez, osasun-sistemaren gaitasuna indartzeko eta osasun-sistemaren eta gizartearen eskaerei hobeto erantzuteko beharrezkoa den ezagutza sortzen eta integratzen laguntzeko.
- **Osasun-arloko ikerketa-jarduera areagotzea**, jarduera kliniko-asistentziala duten langileek egindako I+G proiektuen edo jardueren bidez, I+G jardueretarako dedikazioa areagotzeko eta Euskadiko osasun-sisteman ikerkuntzaren kultura indartzeko.
- **Izaera estrategikoko osasun-ikerketa sustatzea**, Euskadiko lidergo sanitariotik, lankidetzatik eta gaitasun zientifiko-teknologikoen aprobetxamendutik sortutako I+G proiektuen bidez —produktu, prozesu edo zerbitzu berrien balorizazioan eta garapenean aurrera egitea ahalbidetzen dutenak—, RIS3 ZTBP Euskadi 2030 strategiaren ildotik.
- **Interes bereziko ekintza osagarriak**, RIS3 Euskadiren 2030erako Zientzia eta Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuekin bat datozenak, Osasun pertsonalizatuaren esparruan.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMAK DIRUZ LAGUNTZEKO MILIOI BAT EUROKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatutako museo eta bildumentzako dirulaguntza deialdia onartu ditu gaur. 1.000.000 euroko partida izango da, honako jarduera hauek finantzatzeko:

- Bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea.
- Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- Jarduera didaktikoak eta kultura-hedapenekoak diseinatzea eta eskaintzea, gaiaren eta jardun-eremuaren arabera.
- Gaiari eta jardun-eremuari lotutako ezagutza sortzea.
- Museoaren kudeaketan eta hedapen- eta komunikazio-planeari buruzko berrikuntza hobetzea eta bultzatzea.

Interesa duten pertsona fisiko eta juridikoek Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute. Era berean, ezin izango dira deialdi honetara aurkeztu honako hauek:

- Foru-titulartasuna duten museoak edo bildumak.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gobernu-organoetan parte hartzen duen fundazioak.
- Euskadiko Administrazio Orokorraren partaidetza duten merkataritza-erakundeak.
- Helburu bererako diru-laguntza izendunak jasotzen dituzten museoak eta bildumen erakunde titularrak.
- Banku-fundazioen edo finantza-erakundeen partaidetza nagusia duten erakundeak.

Diruz lagundutako jarduerak 2022an hasi eta amaitu beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iaz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 48 dirulaguntza eman zizkien museo eta bildumei, besteak beste, Albaola Elkarteari, Eibarko Armagintzaren Museoari, Makina-Erremintaren Museoari, Donostiako Aquariumari, Bilboko Euskal Museoari, Gasteizko Arte Sakratuaren Museoari eta Sagardoetxeari baita hainbat udal museori ere.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK HIRI-MERKATARITZAREN DINAMIZAZIO ETA LEHIAKORTASUNERAKO HIRIGUNE PROGRAMA ONARTU DU, 1.850.000 EUROKO ZUZKIDURAREKIN, AURREKO EDIZIOAN BAINO % 4,5 GEHIAGO

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Hirigune programaren deialdia onartu du, merkatarien elkarteen jarduera bultzatzeko laguntzak, merkataritza-sektorea suspertzen lagunduko duten hiri-merkataritzaren lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izango dira udal-merkatarien elkarteak, elkarte mistoak edo hiri-merkataritzako plataformak, taldeak edo elkarteak.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak honako ildo hauetan sartzen dira:

- Hurbileko merkataritza dinamizatzerako bideratutako azterlanak
- Hurbileko merkataritzari laguntzea
- Teknologien digitalizazioa eta erabilera
- Gaitasun digitalei buruzko prestakuntza

Ekitaldi honetarako aurrekontu-kreditua 1.850.000 eurokoa da, 2021eko programakoa baino % 4,5 handiagoa. Ahalik eta eskaera gehienei erantzun ahal izateko, deialdi honetan ebazpen ez-lehiakorraren prozedura aukeratu da, eta horrek laguntza erakunde guztien artean banatzea bermatzen du, baldin eta, eskabideak behar bezala egin ondoren, Aginduan onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Horrela, Euskadin ahalik eta elkarte gehien eta lurralde-banaketa handiagoa lortzea lortu nahi da.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

652.000 EURO TURISMOKO EKINTZAILETZARAKO LAGUNTZETARAKO, EMET22

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 652.000 euroko laguntzak onartu ditu, Covid-19ak eragindako krisi ekonomiko eta sanitarioaren testuinguruan turismo-jarduera suspertzeko eta bultzatzeko.

EMET programak Euskadin tokiko garapena bultzatuko duten turismo-negozio berriak sortzen lagunduko du, bai eta euskal turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako jarduerak ere, berrikuntza teknologikoa bultzatuz, haien turismo-eskaintza hobetuz eta optimizatuz. Turismo seguru, iraunkor, arduratsu eta irisgarri batera egokitzeko jarduerak ere kontuan hartuko dira. Diru-laguntzen ildoak negozio turistiko berriak sortzeko ekintzailletza-proiektuak eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko ekimenak dira.

Programa honen onuradunak honako hauek dira: ostatuko eta jatetxeetako turismo-enpresak, bitartekaritzako turismo-enpresak, turismo-garraioko enpresak, turismo aktiboko enpresak, kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalak, turismo-gidarien enpresak eta autokarabanentzako harrera-eremu bereziak.

Presidencia

VARIOS AYUNTAMIENTOS DE GIPUZKOA DAN LOS PRIMEROS PASOS PARA POSIBILITAR ENTERRAMIENTOS POR RITO MUSULMÁN EN SUS CEMENTERIOS

Después de un proceso de un año de trabajo con la Comisión ADOS y las Comunidades Islámicas de Euskadi, varios ayuntamientos de Gipuzkoa están dando los primeros pasos para poder habilitar en sus cementerios parcelas que hagan posible los enterramientos por rito musulmán. En concreto, se trata de los Ayuntamientos de Donostia, Tolosa, Ordizia y Elgoibar.

El requisito principal que deben cumplir estas parcelas para que pueda desarrollarse un enterramiento siguiendo el rito musulmán es que las sepulturas estén orientadas al este. Sobre esta base, se desarrollan los rezos y ritos de inhumación propios del Islam como, por ejemplo, acomodar el cuerpo a medio lado o introducir tierra en el ataúd.

En los casos de Donostia, Tolosa, Ordizia y Elgoibar, el proceso está avanzado y se prevé que estas parcelas puedan estar preparadas antes de fin de este año. En otro grupo de Ayuntamientos, el proceso está en fase de análisis de las posibilidades técnicas que ofrecen sus respectivos cementerios.

De este modo, estos ayuntamientos están respondiendo a una realidad socio-religiosa y cultural crecientemente plural y también al respeto a las libertades y derechos fundamentales. La libertad de religión es uno de los derechos humanos reconocidos universalmente en todos los tratados y convenios internacionales de derechos humanos.

Esta libertad incluye tanto el derecho a profesar libremente, de manera individual o colectiva, cualquier religión, como el derecho a no profesar ninguna religión o creencia. La libertad religiosa está expresamente reconocida como derecho fundamental en el artículo 16 de la Constitución.

Por otra parte, la Ley 26/1992, de 10 de noviembre, por la que se aprueba el Acuerdo de Cooperación entre el Estado y la Comisión Islámica de España, reconoce a las Comunidades Islámicas el derecho a contar en los cementerios municipales con parcelas destinadas a los enterramientos por rito musulmán, siempre con sujeción a lo dispuesto en la legislación de régimen local y de sanidad.

Antecedentes

Al inicio de la pandemia se puso de manifiesto la problemática que suscitaba el hecho de que en los cementerios vascos no hubiese opciones para realizar enterramientos por rito musulmán. En marzo de 2020, a la ausencia en Euskadi de recintos o parcelas para estas inhumaciones se unió la imposibilidad de

repatriación de los cuerpos a lugares de origen como Marruecos, Pakistán o Senegal, debido el cierre de fronteras y el cierre también de algunos cementerios de comunidades autónomas vecinas que sí cuentan con este tipo de parcelas. Todo ello creó una situación de honda preocupación en las Comunidades Islámicas de Euskadi.

Esta problemática fue presentada ante la Comisión Asesora ADOS para la colaboración con las Comunidades Islámicas de Euskadi. Esta Comisión creada en abril de 2018 es el órgano de participación, cooperación y asesoramiento para las políticas públicas del Gobierno Vasco y de las instituciones vascas en sus relaciones con las Comunidades Islámicas de Euskadi así como para favorecer la convivencia.

